



ZEGAMA KO UDALA

2022KO UZTAILAREN 14AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- 2/2022 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEAREN ONARPENA.
- 2.- 2021EKO EKITALDIKO URTEKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.
- 3.- UDALEKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETARI BURUZKO ERABAKIA.
- 4.- PEREGRINO ETXEAREN ERABILERARAKO DONE JAKUE BIDEKO OSPITALEZAIN BOLONDRES ELKARTEAREKIN AKORDIOA.
- 5.- ORMAZPEI S.L. LUDOTEKA ETA GAZTELEKU ERABILERA IZANGO DUTEN LOKALEN EGOKITZAPEN LANEN 2. LAN EGIAZTAGIRIA.
- 6.- ERASO ETA JARRERA MATXISTARIK GABEKO JAIK SORTZEKO BELDUR BARIK GUNEA PROPOSAMENA.
- 7.- OSAKIDETZAKO HERRIETAKO ANBULATEGIEN ITXIERAREN AURKAKO ETA OSASUN SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEA ESKATZEKO MOZIOA.
8. ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 9.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:



ZEGAMAKO UDALA

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.
Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

Bilkurari hasiera eman baino lehen, Alkateak azaltzen du 6. puntuan jasotako proposamena oker jaso dela, eta bilkuran eztabaidatzea proposatu nahi zen gaia, banatu den, GIPUZKOA EMAKUMEEN AURKAKO SEXU INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO JAIEN ALDE ADIERAZPENA zela. Horrenbestez, hau zuzendu eta adierazpenaren onarpena bideratzea proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, bilkurakideak aho batez onartzen dute adierazitakoa.

1.- 2/2022 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEAREN ONARPENA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	89.992,00
6	INBERTSIO ERREALAK	85.731,80



ZEGAMA KO UDALA

KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA	175.723,80
-----------------------------	------------

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	175.723,80
GUZTIRA		175.723,80

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

2.- 2021EKO EKITALDIKO URTEKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.

Espedientea ikusirik

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2004 Foru Arauaren 63. atalean ezarritakoaren arabera, Udaleko 2021ko Kontu Orokor hauek jendaurrera jarri ziren.

Dagozkion argitalpenak, 2022ko ekainaren 10eko 110 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko alean eta Udaleko iragarki oholean egin ondoren, erreklamazioak, eragozpenak eta oharpenak jaso ez direla kontuan harturik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

- 1) 2021eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea.
- 2) Espedientearen kopia bat, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Euskadiko Kontu Epaitegiari bidaltzea.

3.- UDALEKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETARI BURUZKO ERABAKIA.

Espedientea ikusirik.

Udalbatzarrak, 2022ko maiatzaren 16an hartutako erabakia ikusirik.

Bertan erabakitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, aldaketan proposatutako hizkuntza eskakizunei eta derrigortasun datai buruzko txostena eskatu zen eta hau jaso da.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (42. Zk., 200ko martxoaren 3koa) argitaratu zen udal honetako lanpostuen zerrendari buruz helarazitako idazkian azaldutakoari erantzuna



ZEGAMA KO UDALA

emanen, eta aldaketaren jakinarazpena eginez, idatzia helarazi zen. Idazkariak azaltzen du gaurdaino ez dela honen erantzunik jaso.

Horrenbestez, eta aldaketaren onarpena bideratzea dagokiola iritziz, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak helarazitako txostena aztertu ondoren, maiatzaren 16ko erabakian lanpostuen zerrendan jasotako hizkuntza eskakizunak mantentzea proposatzen da. Horrela, balio anitzeko peoiari ezarritako derrigortasun data (2023/06/30) egokitzea proposatzen da, 2022/12/31 data ezarriz. Bestalde, gizarte langileari derrigortasun-data 2022/05/16ra aldatzeari dagokionez, Zuzendaritzak aldatzeko arrazoi nahikorik ez dagoela irizten du, nolanchi ere, lanpostuan emandako aldaketa, eta honen betetzea, Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloako Udalek elkartutako plaza izanik, eta horretarako formalizatutako Lankidetzak Hitzarmenaren arabera egin dela kontuan izanik, data bateratu bat mantentze aldean, 2022/05/16 datarekin jasotzea irizten da.

Espedientearen gainean Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman du, hala galdatzen baita, besteak beste, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.c) artikuluan -lege horren bidez Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dira, TAOAL-, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82., 123. eta 126. artikuluetan -arau horren bidez Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onetsi zen, AFE-.

Eztabaidatu eta bozkatu ondoren, udalbatzak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH Bildu taldeko bi zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

LEHENENGOA.- Adierazitakoaren arabera, Udaleko Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda aldatzea,

I. ERANSKINA / ANEXO I

2022ko plantilla organikoa

Plantilla orgánica para el año 2022

A) KARRERAKO FUNTZIONARIOI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK/ PUESTOS RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA

LANPOSTUAREN PUESTO	IZENA/ DENOMINACIÓN DEL	LANPOSTU KOPURUA/ NÚMERO DE PUESTOS	TALDEA/ GRUPO	EGOERA/ SITUACIÓN
	IZAERA NAZIONALEKO GAITASUN ESKALA/ FUNCIONARIOS DE HABILITACIÓN NACIONAL Idazkari-Kontuhartzaitzako azpieskala/ Subescala de Secretarios-Interventores			
	IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA/ SECRETARIO/A-INTERVENTOR/A	1	A1-A2	H-V



ZEGAMA KO UDALA

ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL Administrarien Azpieskala/ Subescala Administrativa			
BALIABIDE PUBLIKO, PERTSONALA ETA KONTUEN ADMINISTRARIA/ ADMINISTRATIVO/A DE GESTIÓN DE LOS RECURSOS PÚBLICOS, PERSONAL Y CUENTAS	1	C1	J
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL Azpieskala tekniko/ Subescala técnica			
Gizarte Langilea/ Trabajador/a Social	1	A2	H-V **
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL Azpieskala tekniko/ Subescala técnica			
Liburuzaina eta gazte koordinatzailea/ Bibliotecario/a y coordinador/a de juventud.	1	C1	H-V**
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL Laguntzaileen Azpieskala/ Subescala Auxiliar			
Administrazio Orokorreko Administrari Laguntzailea/ Auxiliar Administrativo/a de Administración General	1	C2	H-V**
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL Azpieskala tekniko/ Subescala técnica			
Euskara eta Kultura teknikaria/ Técnico/a de Euskara y Cultura.	1	A2	F*

B) LAN LEGEPEKO LANGILEEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK/ PUESTOS RESERVADOS A PERSONAL LABORAL

LANPOSTUAREN IZENA/ PUESTO	DENOMINACIÓN DEL	Lanpostu kopurua/ Número de puestos	Taldea/ Grupo	Egoera/ Situación
Zeregin Anitzetako Ofiziala/ Oficial de cometidos múltiples		1	C2	F
Balio anitzeko peoia. Peón/a polivalente.		1	A.P.	H-V

EGOERA-SITUACIÓN
J-P: Jabea-Propiedad



ZEGAMAKO UDALA

F: Finkoa -Fijo

H-V: Hutsik-Vacante

(*)Este puesto de trabajo está ocupado por personal laboral.

(**) Ocupado por personal con contrato laboral temporal.



ZEGAMA KO UDALA

II. ERANSKINA / ANEXO II 2022. URTERAKO UDAL HONETAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

Ordena zenbakia	Izena	Lanpostu kopurua	Taldea	Lanpostu mota	Hornikuntza era	EUIFALEBA maila	Ordainketa Osagarriak		Dedikazioa	Bulegoa	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak					Berriazko merezimenduak	Harremana	
							Dest. Osag. Maila. Dekretu	Osagarri espezifikoa			Adskripzioa			Hizkuntz eskakiz.				Exijitutako titulazioa
											Taldea edo eskala	Azpieskala	Mota	Maila	Derrigortasun data			
KARRERAKO FUNTZIONARIEI ERRESERBATURIKO LANPOSTUAK																		
1	Idazkari-Kontuhartzailea	1	A1-A2	B	L/ML	19	24	19.892,40	100	I-K	GN	I/K	3	4	96-10-30	1	(1)	F (H)
2	Baliabide publiko, personala eta kontuen administraria	1	C1	A	L	13	18	17.653,82	100	I-K	AO	AA	-	3	17-05-09	4		F



ZEGAMA KO UDALA

Ordena zenbakia	Izena	Lanpostu kopurua	Taldea	Lanpostu mota	Hornikuntza era	EUFALEBA maila	Ordainketa Osagarriak		Dedikazioa	Bulegoa	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak					Berriazko merezimenduak	Harremana	
							Dest. Osag. Maila. Dekretu	Osagarri espezifikoa			Adskripzioa			Hizkuntz eskakiz.				Exijitutako titulazioa
											Taldea edo eskala	Azpjeskaila	Mota	Maila	Derrigortasun data			
3	Euskara eta Kultura Teknikaria	1	A2	A	L	16	21	18.365,20	100 D.B.O.% 5 Lanaldi luzatua / %5 Erabateko baliagarritasuna	KZ	AB	AT	-	4. T.G.	94-12-31	2		F *
4	Gizarte langilea	1	A2	A	L	14	20	6706,58	43,99	GZ	AB	AT	-	3	22/05/16	3		F (H) **



ZEGAMAKO UDALA

Ordena zenbakia	Izena	Lanpostu kopurua	Taldea	Lanpostu mota	Hornikuntza era	EUFALIBA maila	Ordainketa Osagarriak		Dedikazioa	Bulegoa	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak					Berriazko merezimenduak	Harremana	
							Dest. Osag. Maila. Dekretu	Osagarri espezifikoa			Adskripzioa			Hizkuntz eskakiz.				Exijitutako titulazioa
											Taldea edo eskala	Azpjeskaila	Mota	Maila	Derrigortasun data			
5	Liburuzaina eta gazte koordinatzailea	1	C1	A	L	9	14	14.805,50	100	KZ	AB	AT	-	3	22/05/16	4		F (H) **
6	Administrazio Orokorreko Administrari Laguntzailea	1	C2	A	L	9	14	14.805,50	100	I-K	AO	LA		3	22/05/16	5		F (H) **

Ordena	Izena	ostu kopurua	Taldea	lanpostu mota	hornikuntza era	EUFALIBA maila	Osagarri	Osag. espezifikoa	Dedikazioa	D B O	K B O	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak	F (H) **
--------	-------	--------------	--------	---------------	-----------------	----------------	----------	-------------------	------------	-------	-------	---	----------



ZEGAMA KO UDALA

zenbakia						maila					Hizkuntz eskakizuna		Titulación exigida	
											Koefizientea	Derrigortasun data		
LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK														
1	Zeregin anitzetako ofiziala	1	C2	9	10	15	15.987,40	100	% 25	% 2	2	00-12-31	5/7	L
2	Balio anitzeko peoia	1	AP	6	7	14	10.201,20	100			1	22-12-31	6/7	L (H)

LANPOSTU MOTA

B: Berarizkoa
A: Araututakoa

HORNIDURA-MODUA

IL: Izendapen librea
ML: Merituen Lehiaketa
L: Lehiaketa edo lehiaketa-oposizioa

BULEGOAK

A: Alkatetza
I/K: Idazkaritza-Kontuhartzaitetza
GZ: Gizarte Zerbitzuak
KZ: Zultur Zerbitzuak
OZ: Obra eta Zerbitzuak

ESKALA

HN: Estatu mailako gaitasuna
AO: Administrazio orokorra
AB: Administrazio berezia

AZPIESKALA

I/K: Idazkari-Kontuhartzailea
AA: Administrazio azpieskala

MOTA

OP: Operarioa

HARREMANA

BB: Behin behineko Pertsonala
F: Funtzionarioa



ZEGAMA KO UDALA

LA: Laguntzailea azpieskala.
SA: Subalterno azpieskala
AT: Azpieskala teknikoa
ZBA: Administrazio Bereziko, zerbitzu berezietako azpieskala

ESKATUTAKO TITULAZIOA

- 1: Gradu o baliokide unibertsitateko titulazioa/Gaikuntza Nazionala.
- 2: Unibertsitateko gradu- titulua, lizentziatura, ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomatua, arkitekto teknikoa edo baliokidea
- 3: Gizarte lanean diplomatua edo gizarte lanean gradua.
- 4: Batxiler-titulua, titulu teknikoa edo baliokidea.
- 5: Eskola-gradudun edo lanbide-hezkuntzako lehenengo mailako titulua edo baliokidea.
- 6: Eskola ziurtagiria edo baliokidea
- 7: Gidatzeko baimena B1

(1)
- Berriazko merezimenduak.

1.- Eginiko zerbitzuak:

H: Hutsik.
L: Pertsonal laborala
(*) Lanpostu hau pertsonal laboralarekin beteta dago.

(**) Lanpostu hau-aldi baterako lan kontratua duen langile batek betetzen du



ZEGAMA KO UDALA

* Azpieskala berean, Euskal Autonomi Elkartearen barruan: 0,020 puntu urte bakoitzeko (0,22 puntu gehienez).

* Azpieskala berean, Euskal Autonomi Elkarteaz kanpo: 0,01 puntu urte bakoitzeko (0,22 puntu gehienez).

* Herri-Administrazioan Administrazio Orokorreko Teknikari gisa edo antzeko lanposturen batean eginiko zerbitzuak: 0,01 puntu urte bakoitzeko (0,06 puntu gehienez).

2.- Prestakuntza-ikastaroak:

* HAAE edo Euskal Autonomi Elkarteko beste erakunde ofizial batek udal-kontuhartzaitzarekin zerikusia duten gaiei buruz antolatutako 40 orduko edo iraupen luzeagoko ikastaro bakoitzeko: 0,10 puntu (0,30 puntu gehienez).

* HAAE edo Euskal Autonomi Elkarteko beste erakunde ofizial batek udal-administrazioarekin zerikusia duen beste edozein gairi buruz antolatutako 40 orduko edo iraupen luzeagoko ikastaro bakoitzeko: 0,05 puntu (0,20 puntu gehienez).

3.- Titulazioak:

* Zuzenbideko edo Ekonomi eta Enpresa Zientzietako dakotoretza titulua izatea: 0,5 puntu.

- Berariazko merezimenduak egiaztatzeko modua:

* Eginiko zerbitzuak egin direneko udal-korporazioako idazkariak emandako jatorrizko ziurtapen bidez egiaztatuko dira.

* Ikastaroak, kasuak kasu, HAAEko edo eskola ofizialeko funtzionarioak edo agintariak emandako jatorrizko ziurtagiriak aurkeztuz egiaztatuko dira.

* Unibertsitate-tituluak izatea, behar bezala konpulsatutako jatorrizko agirien bidez.



ZEGAMAKO UDALA

PUESTOS DE TRABAJO PARA EL 2022

N.º de orden	Denominación	N.º de puestos	Grupo	Tipo de puesto	Forma de provisión	Nivel ARCEPAFE	Retribuciones Complementarias		Dedica ción	Depen dencia	Requisitos exigidos para su desempeño			Méritos específicos	Vínculo
							L e	Complemento			Adscripción	Perfil lingüístico	Titulación exigida		



ZEGAMAKO UDALA

								específico			Grupo o escala	Subescala	Clase	Coefficiente	Fecha de preceptividad			
PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA																		
1	Secretario-Interventor	1	A1-A2	S	C	19	24	19.892,40	100	S-I	HN	S/I	3	4	30-10-96	1	(2)	F (V)
2	Administrativo/a de gestión de los recursos públicos, personal y cuentas	1	C1	N	C	13	18	17.653,82	100	S-I	AG	A	-	3	09-05-17	4		F
3	Técnico de Euskera y Cultura	1	A2	N	C	16	21	18.365,20	100 C.D.E. 5% jornada ampliada/ 5% disponibilidad absoluta	SC	AE	ST		4.T.P.	31-12-94	2		F *



ZEGAMAKO UDALA

N.º de orden	Denominación	N.º de puestos	Grupo	Tipo de puesto	Forma de provisión	Nivel/ARCEPAFE	Retribuciones Complementarias		Dedicación	Dependencia	Requisitos exigidos para su desempeño					Méritos específicos	Vínculo	
							Nivel Compl. Dest. Decreto	Complemento específico			Adscripción			Perfil lingüístico				Titulación exigida
											Grupo o escala	Subescala	Clase	Coficiente	Fecha de preceptividad			
4	Trabajador/a Social	1	A2	N	C	14	20	6706,58	43,99	SS	AE	ST		3	16/05/22	3		F (V) **
5	Bibliotecario/a y coordinador/a de juventud	1	C1	N	C	9	14	14.805,50	100	SC	AE	ST		3	16/05/22	4		F (V) **
6	Auxiliar administrativo/a de administración general.	1	C2	N	C	9	14	14.805,50	100	S-I	AG	AA		3	16/05/22	5		F (V) **

N.º de orden	Denominación	N.º de puestos	Grupo	Categoría profesional	Nivel ARCEPA F	Compl. destino	Complemento específico.	Dedicación	C.D.E.	C.P.T.	Requisitos exigidos para su desempeño		Vínculo
											Perfil lingüístico	Titulación exigida	



ZEGAMAKO UDALA

												Coficiente	Fecha de preceptividad		
PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL LABORAL															
1	Oficial de Cometidos Múltiples	1	C2	9	10	15	15.674,56	100	25 %	2 %	2	31-12-00	5/7	L	
2	Peón/a polivalente	1	AP	6	7	14	10.201,20	100			1	31-12-22	6/7	L (V)	

TIPO DE PUESTO:

S: Singularizado
N: Normalizado

FORMA DE PROVISIÓN:

L: Libre designación
CM: Concurso de méritos
C: Concurso o concurso-oposición

DEPENDENCIA:

A: Alcaldía
S/I: Secretaría-Intervención
SS: Servicios sociales
SC: Servicios culturales
OS: Obras y servicios

ESCALA:

HN: Habilitación nacional
AG: Administración general
AE: Administración especial

SUBESCALA:

S/I: Secretaría-Intervención
A: Subescala administrativa

CLASE:

OP: Operario

VÍNCULO:

PE: Personal eventual
F: Funcionario



ZEGAMAKO UDALA

AA: Subescala auxiliar
ST: Subescala técnica
S: Subescala subalterno
SE: Subescala de servicios especiales.

V: Vacante
L: Laboral
(*)Este puesto de trabajo está ocupado por personal laboral.
(**) Ocupado por personal con contrato laboral temporal.

TITULACIÓN EXIGIDA

- 1: Título universitario de Grado o equivalente/Habilitación Nacional.
- 2: Unibertsitateko gradu- titulua, lizentziatura, ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomatua, arkitekto teknikoa edo baliokidea
- 3: Diplomatura en Trabajo Social o grado en trabajo social.
- 4: Título de Bachiller, Técnico o equivalente.
5. Graduado de escolaridad o Formación Profesional de 1º grado o equivalente
- 6: Certificado de escolaridad o equivalente
- 7: Permiso de conducción B1

(2)

- Méritos específicos:

- 1.- Servicios prestados.

* En la subescala, dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco: 0,020 puntos por año, hasta un máximo de 0,22 puntos.



ZEGAMAKO UDALA

* En la subescala, fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco: 0,01 puntos por año, hasta un máximo de 0,22 puntos.

* Servicios prestados en la Administración Pública como Técnico de Administración General o similar: 0,01 puntos por año, con un máximo de 0,06 puntos.

2.- Cursos y Diplomas.

* Por cada curso de aprovechamiento igual o superior a 40 horas organizado por el IVAP u otra entidad oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sobre materias relacionadas con la Intervención Municipal: 0,10 puntos, con un máximo de 0,30 puntos.

* Por cada curso de duración igual o superior a 40 horas organizado por el IVAP u otra entidad oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sobre cualquier otro tema relacionado con la Administración Municipal: 0,05 puntos, con un máximo de 0,20 puntos.

3.- Titulaciones.

* Doctorado en Derecho o en Ciencias Económicas y Empresariales: 0,5 puntos.

- *Forma de acreditar los méritos específicos:*

* Los servicios prestados se acreditarán mediante certificaciones originales expedidas por el Secretario de la Corporación municipal en la que se hayan prestado.

* La acreditación de los cursos deberá realizarse mediante la aportación de certificaciones originales expedidas por el funcionario o autoridad del IVAP o Escuela Oficial, según el caso.

* La posesión de los títulos universitarios, mediante copia de los documentos, originales, debidamente compulsada.



ZEGAMA UDALA



ZEGAMA KO UDALA

BIGARRENA. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 15 egun baliodunetan. Epe horretan, interesdunek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkez diezazkiokete, egoki jotzen badute. Era berean, udaleko iragarkien ohelean eta webgunean ere argitaratuko da.

Erabakia behin betiko onetsizat joko da, baldin eta epe horretan ez bada erreklamaziorik aurkezten; hartara, Alkatetzak behin betiko bihurtuko du erabakia eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko.

Erreklamazioak aurkeztuz gero, hilabeteen gehienera ere, beroriek onesteko edo ukatzeko eta langileen zerrenda nahiz lanpostuen zerrenda behin betiko onesteko proposamena udalbatzari aurkeztuko zaio (TOATBL, 169.1. artikulua).

4.- PEREGRINO ETXEAREN ERABILERARAKO DONE JAKUE BIDEKO OSPITALEZAIN BOLONDRES ELKARTEAREKIN AKORDIOA.

Alkateak azaltzen du, Peregrino Etxearen erabilerarako, Done Jakue Bideko Ospitalezain Bolondres Elkartearekin akordio bat bideratu dela.

Horrenbestez, adostutako akordioa azaltzen du, adieraziz, Udalarentzat onura handia suposatzen duela bolondres elkartearekin zerbitzu hau bideratzeko aukera edukitzea. Era berean adierazten du, erabiltzaileei 10 euro kobratuko zaizkiela. Azaltzen du ere, bolondresen bazkari gastua jasotako ordainketetatik beteko litzatekeela, eta hilabeteen bazkariak ordaintzeko behar adina dirurik ez balego, beraiek ordainduko luketela. Erabiltzaileen prezioa, arau fiskalen aldaketan jaso beharko dela adierazten du Idazkariak. Adierazten du bolondres taldeak zerbitzua ekainaren 1etik irailaren 30^a arte burutuko duela eta ondoren, lehengo sistemara itzuli beharko dela.

Akordioa ikusirik, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako bi zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Peregrino Etxearen erabilerarako, Done Jakue Bideko Ospitalezain Bolondres Elkartearekin akordioa onartzea.



ZEGAMA KO UDALA

Bigarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

5.- ORMAZPEI S.L. LUDOTEKA ETA GAZTELEKU ERABILERA IZANGO DUTEN LOKALEN EGOKITZAPEN LANEN 2. LAN EGIAZTAGIRIA.

Espedientea ikusirik.

Udalbatzarrak, 2021eko uztailaren 20an egin zuen bilkuran Zegamako udalerrian ludoteka eta gazteleku erabilera izango duten beheko solairuko lokalak egokitzeko obrak kontratazeko administrazio administrazio pleguak onartu zituen, prozedura irekiz eta ohiko tramitazioarekin.

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, eta Kontratazio Mahaiak, 2021eko irailaren 14an, egindako proposamena jarraituz, urriaren 5eko Alkatetzaren erabakiaren bidez, erreferentziako kontratua honakoaren arabera esleitzea ebatzi zen:

ORMAZPEI, S.L.PABLO VI AUZUNEA, 18 BEHEA-AZPEITIA (NIF.- B20630513) enpresari esleitzea, 251.769,61 eurotan gehi 52.871,62 euro BEZaren %21ari dagozkionak (guztira, 307.852,48 euro BEZ barne), baldintzen pleguetan eta aurkeztutako proposamenaren arabera.

Horren arabera, adierazitako kontratua 2021eko urriaren 19an sinatutako kontratuan formalizatu zen.

Udalbatzarrak 2021eko azaroaren 2an egindako bilkuran, azal dutako Alkatetzaren erabakia berretsi zuen.

Une honetan, Ormazpei S.L. enpresak, lan horien bigarren lan egiaztagiria eta faktura (08/2022 zenbakia duena) aurkeztu du, honen zenbatekoa, 73.672,65 eurokoa BEZ barne delarik.

Udalbatzarrak, 2021eko azaroaren 23an egindako bilkuran, lehen lan egiaztagiria eta faktura (05/2021 zenbakia duena) onartu zuen (honen zenbatekoa, 132.311,71 eurokoa BEZ barne delarik).

Faktura ikusirik, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako bi zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen



ZEGAMA KO UDALA

du:

Lehen.- Adierazitako faktura onartzea.

Bigarrena.- Fakturaren gastuak onartzea, 2021eko Aurrekontu Orokorraren 1.0000.622.01.334.00.2021 eta 1.0000.622.01.334.00.2022 aurrekontu sailei egotziz, eta ordainketa bideratuz.

Hirugarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

6.- GIPUZKOA EMAKUMEEN AURKAKO SEXU INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO JAIEN ALDE ADIERAZPENA

Alkateak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdinbidean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organotik helarazitako eta onartzea proposatzen den adierazpena azaltzen du.

Hau da, idatziaren testu osoa:

“ Gipuzkoa emakumeen aurkako sexu indarkeria matxistarik gabeko jaien alde

Gipuzkoako Foru Aldundiak hausnarketa prozesu bat jarri du abian lurraldeko udalerriekin, jaiak emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko gozamen eta ospakizun gune bat izan daitezen.

Euskal administrazio publikoek eta mugimendu feministak –askotan koordinatuta– hainbat ekimen garatu dituzte azken hamarkadan, jaietan emakumeen aurka egindako sexu indarkeria lantzeko. COVID-19aren pandemiak eragindako osasun larrialdiari aurre egiteko ezarri diren murrizketen ondorioz bi urte igaro ditugu jai publiko eta sozial gehienak ospatu ezinik, eta orain badatoz berriro udako jaiak Euskal Herriko udalerrri gehienetara.

Kontuan hartuta

- *Jaien testuinguruak jokabidearen eta harremanen mugak urratzeko bidea ematen duten espazio ludikotzat hartzen direla.*
- *Urratze ludiko horiek ezin direla aitzakia izan gure udalerrietako jaietan emakumeen aurkako sexu indarkeria matxista legitimatzeko edo normalizatzeke.*



ZEGAMAKO UDALA

- Eraso gehienak ez direla salatzen, biktimek badakitelako beren jokabidea epaituko dela, jasan duten delitua baino gehiago.
- Jaietako sexu indarkeria emakumeen askatasunaren, mugikortasunaren eta segurtasunaren aurkako erasoak dela.
- Jaietako aisia eta gozamina emakumeen eskubidea dela, eta eskubide hori berdintasunean gauzatzeko aukera izan behar dutela.

Gipuzkoak bere gain hartzen du konpromiso hau

Emakumeen aurkako sexu erasoak jaien testuingurutik kanpo uzteko lan egitea, eraso horiek egiturazko indarkeria testuinguru batean puntualki gauzatuak direla indarkeria matxista direla ulertuta; hau da, eraso horiek ez dituela festa giroak eragiten, baizik eta giro hori hartzen dela erasoak egiteko aitzakiatzat.

Testuinguru horretan, gure **konpromisoa** politika argi batzuetan islatzen da, lau esparrutan:

Jaien antolaketa

Udalerrri guztietan jartzen ditugu abian gure herrietako jaiak planifikatzeko eta garatzeko lan espazioak. Konpromisoa hartzen dugu espazio horietan emakumeen aurkako sexu indarkeria matxista kontuan hartzeko, horri aurre egiteko neurriak hartzeko eta neurri horietan inplikaturik dauden gizarte eragileen konpromisoa bultzatzeko.

Emakumeen aurkako sexu indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerraraztearen arloko esparru juridikoak aintzat hartuta, udalerriei dagokie emakumeen aurkako sexu indarkeria prebenitzeko sentsibilizazio kanpainak eta neurriak abian jartzea.

Esparru horretan, gure gain hartzen dugu eremu horretako mezuek eta ekintzek erasoak erantzukizuna erasotzaileengan jartzeko konpromisoa, eta biktimek sinesgarritasuna eta emakumeek sexu askatasunerako eta jai espazioez gozatzeko duten eskubidea azpimarratzeko. Ildo horretan, emakumeei ez zaie erantzukizun mezurik edo zaintza mezurik bidaliko, mezu horiekin indarkeria matxistaren funtzio soziala indartu baino ez baita egiten: emakumeak kontrolatzea.

Biktimentzako arreta

Jaietako sexu indarkeria matxistak ezaugarri bereziak ditu. Biktimentzat traumatikoak diren



ZEGAMA KO UDALA

elementuez gain, badaude beste baldintza batzuk ere, hala nola gauaren eragina, herriko jaiak laneko jaiegunekin batera gertatzen direla, eta espazio publikoetan gerta daitezkeela: tabernetan, txosnetan...

Testuinguru horretan, neurriak hartzeko konpromisoa hartzen dugu, udaleko arreta zerbitzuak egoera horietara egokitu daitezen eta biktimek lehen mailako arreta egokia jaso dezaten, eskura dituzten zerbitzu, baliabide eta haiengana iristeko bide guztiak ezagutzeko aukera izan dezaten.

Erantzun publikoa: 0 tolerantzia emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko

Azken urteotan, erakundeek agerian utzi dute funtsezkoa dela indarkeria matxista baztertuko duen eta erasotzaileen zigorgabetasuna eta zilegitasuna geldiaraziko duen kultura sozial bat eraikitzea, mugimendu feministak hasitako hausnarketa kolektiboa bultzatuz eta zabalduz. Erakunde publikoak eraikuntza horretan parte hartu behar dugu, horrelako erasoak gaitzesteko estrategia eta adierazpen publikoak sortuz.

Aldundiak eta Gipuzkoako udallerriek konpromisoa hartzen dugu emakumeenganako sexu indarkeria matxistaren aurkako gure jarrera publikoki adierazteko. Erantzun publiko horren printzipio gidariak hauek dira: emakumei sinestea, haien borondatea errespetatzea eta biktimei ordaina ematea. Horretarako, edozein adierazpen publiko egin aurretik, funtsezkoa da emakumeek arreta egokia jaso dutela bermatzea.

Konpromiso partekatua

Aldundiak eta Gipuzkoako udalek, azken asteotan egindako lan prozesuaren ondoren, jaiak emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe gozatzeko gune bihurtzeko ahal den guztia egiteko konpromiso partekatua berresten dugu.

Gizarte osoari dei egiten diogu sexu indarkeria matxistaren existentziaz jabetu dadin, eta pertsona bakoitzak, bere erantzukizunaren esparruan, konpromiso aktiboa har dezan indarkeria matxistarik gabeko jaien alde. Gure auzo eta udallerrietako jaiak indarkeria matxistarik gabeko ospakizun gune izan daitezen, eta haietan emakumeek askatasunez gozatu ahal izan dezaten aisialdiaz, ospakizunez eta gizarte harremanez."

Onarpen proposamena bideraturik, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko bi ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:



ZEGAMA KO UDALA

Lehenegoa.- **Gipuzkoa emakumeen aurkako sexu indarkeria matxistarik gabeko jaien alde adierazpena onartzea.**

Bigarrena.- Hartutako erabakia doakienei jakinaraztea.

7.- OSAKIDETZAKO HERRIETAKO ANBULATEGIEN ITXIERAREN AURKAKO ETA OSASUN SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEA ESKATZEKO MOZIOA.

Alkateak, EH Bildu taldeak "Osakidetzako herrietako anbulategien itxieraren aurkako eta osasun sistema publikoa indartzea eskatzeko mozioa" izenburupean aurkeztutako idatzia azaltzen du.



ZEGAMA KO UDALA



OSAKIDETZAKO HERRIETAKO ANBULATEGIEN ITXIERAREN AURKAKO ETA OSASUN SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEA ESKATZEKO MOZIOA

Osasun Sistema Publikoan, Osakidetzan gertatzen ari dena ez da berria. Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakien ondorio da:

- Etenik Gabeko Arreta Guneak, PAC delakoak, itxi dira, edo ordutegiak murriztu dira.
- Osasun etxeetan izugarritzko profesional gabezia dago. Eta ondorioz, profesional batek, gainerako enpresak bete behar izaten ditu edo egunerokotasunean 45 kontsulta izaten ditu. Egoera horretan ezinezkoa da pazienteei kalitatezko arreta bermatzea.
- Hainbat eta hainbat osasun etxeetan bizitza osoan izandako zerbitzuak ixten edo murrizten ari dira.
- Kontsulta presentzialak lortzea gero eta zailagoa izaten da. Atzerapenak nabarmen areagotu dira.
- Adinekoren eta kronikoren jarraipenerako gero eta zailtasun handiagoak.
- Osasun sustapena bertan behera geratzen joan da edo ez da behar bezala garatu.

Hau guztia ez da pandemiaren errua, ez zen pandemiarekin hasi. Murrizketak eta planifikazio eza, eta osasun sistema publikoa pribatuaren mesedetan ahultzeko estrategia aspaldiko kontuak dira. Osasun sistema publikoan eman diren atzerapausoak gero eta nabarmenagoak izan dira, bereziki 2018tik gaurdaino. Eta guzti honen ondorioak herritarrek (pazienteek) jasaten dituzte, are gehiago herri txikietan.

Pandemian denok ikusi dugu zein garrantzitsua den kalitatezko lehen mailako arreta izatea, baina, sistema hori indartu beharrean, Jaurlaritza kontrakoa egiten ari da.

Herri txikietan medikura joateko beste herri edo hiri batera joan beharko dute. Hori ez da aldaketa kultural bat, oinarrizko eskubide baten aurkako eraso bat baizik, pertsona guztiok kalitatezko arreta sanitario publikoa jasotzeko eskubidea dugulako, eta hori da orain arriskuan dagoena.

Hori dela eta, Zegamako udaleko udalbatzak:

1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio urte osoan zehar, uda sasoiaren barne, herri honetako osasun sistema publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak bermatu ditzala.

2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehenetsunez mediku egoiliarren kontratazio -eredua aldatu dezala, kontratu egonkorrak eta lehen arretan euren garapen profesionalerako ibilbidea ahalbidetuko dutenak bermatuz.

Halaber, gainerako osasun profesionalen kontratazio baldintzak hobetzeko xedearekin, aztertzea Osakidetzan kontratazio irizpideak aldatzea, beti ere egonkortasuna eta garapen profesionala sustatuz, horrela Osakidetza erakargarriago bilakatzeko eta indartzeko.



ZEGAMA KO UDALA

ehbildu

3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lehen Arretako eskaintzen duten mediku, erizain eta gainerako osasun profesional kopurua handitu dezala. Diziiplina anitzeko lantaldeak sortuz, non beste profil profesional batzuk txertatuko diren, hala nola geriatrak eta fisioterapeutak.

Idatzia ikusirik, Alkateak adierazten du Zegama Lantzen taldea bertan jasotako zenbait puntuekin ados daudela dio. Baina aipatzen du, idatzian Eusko Jaurlaritzaren ardura dela azaltzen dela, eta dio, informazio askorik ez badute ere, beraien iritziz Eusko Jaurlaritza arazoa konpontzeko jardunean ari dela, zaitasunak zailtasun eta kudeaketa optimoa ez dela ados egonik. Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) erantzuten du, herriko osasun zerbitzua behera doala, eta galdetzen du ea Zegaman egunero zerbitzua ematen



ZEGAMA KO UDALA

den. Alkateak dio, bere ustez ematen dela. Bestalde azaltzen du, Osakidetzarekin gai honi buruz hitz egin duela, eta pertsonal arazoa dutela helarazi zaiola, beste eremu batzuetan ere (enpresa pribatuan) arazo hori ere ematen dela azalduz, nahiz eta onartzen duten zerbitzuaren kalitatea, arrazoi desberdinak direla medio, urte batzuetatik honera jeitsi egin dela.

Onarpen proposamena bideraturik, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien kontrako botoekin eta EH Bildu taldeko bi ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehenegoa.- EH Bildu taldeak "Osakidetzako herrietako anbulategien itxieraren aurkako eta osasun sistema publikoa indartzea eskatzeko mozioa" adierazpena ez onartzea.

Bigarrena.- Hartutako erabakia doakienei jakinaraztea.

8. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 02/0622 erabakia, ekainaren 8koa, lursailen bereiztea onartzeari buruzkoa.
- 03/0622 erabakia, ekainaren 8koa, lursailen bereiztea onartzeari buruzkoa.
- 04/0622 erabakia, ekainaren 8koa, landa garapeneko dirulaguntza programaren barnean jubilatuen egoitzara zuzendutako lokala erosteko egindako eskaerari uko eginez.
- 05/0622 erabakia, ekainaren 9koa, Olaran auzoko jaiak ospatzeko egindako eskaerak onartuz.
- 06/0622 erabakia, ekainaren 9koa, Olarango jaietan furgonetan ogitartekoak saltzeko baimena emanaz.
- 07/0622 erabakia, ekainaren 9koa, Guraso Elkarteari "kirol festa" antolatzeko baimena emanaz.
- 08/0622 erabakia, ekainaren 9koa, baso fruituen ustiakuntzara lotutako nekazal biltegia erabiltzeko baimena emanaz.
- 09/0622 eta 026/0622 bitarteko erabakiak, ekainaren 9koak, udaleku irekietako hezitzaileen izendapenei buruzkoak.
- 027/0622 erabakia, ekainaren 13koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.
- 028/0622 erabakia, ekainaren 13koa, obra handiko lan baimena emateari buruzkoa.



ZEGAMAKO UDALA

- 029/0622 erabakia, ekainaren 14koa, 10 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina) - guztira 112.966,40 euro- onartuz.
- 030/0622 erabakia, ekainaren 14koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.
- 031/0622 erabakia, ekainaren 14koa, udaleku irekietako hezitzaileen izendapenei buruzkoak (uko egitea onartzea).
- 032/0622 erabakia, ekainaren 14koa, udaleku irekietako hezitzaileen izendapenari buruzkoa.
- 033/0622 erabakia, ekainaren 17koa, ibilgailuen zergan eta herri baratzen zergan aurreko ekitaldietatik datozen zenbait zordun eta hartzekodunen bajei buruzkoa.
- 034/0622 erabakia, ekainaren 22koa, Txarapeko Auzolandegi Taldeak pareta margotzeko egindako eskaera onartuz.
- 035/0622 erabakia, ekainaren 22koa, Orkatz abesbatzak ikasturte amaierako festa antolatzeko egindako eskaera onartuz.
- 036/0622 erabakia, ekainaren 23koa, tasaren kobrantza ezeztatzeari buruzkoa.
- 037/0622 erabakia, ekainaren 23koa, Askatasunaren Etorbidea 11n burututako lanaren zerga eta tasaren kobrantza zuzenketa onartuz.
- 038/0622 erabakia, ekainaren 24koa, partikularrak aulki eta mahaiak alokatzeko egindako eskaera onartuz.
- 039/0622 erabakia, ekainaren 29koa, 11 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina 2) - guztira 173.263,47 euro- onartuz.
- 01/0722 erabakia, uztailaren 5koa, udako kanpamenduetan eskolako gimnasioa erabiltzeko baimena emanez (Ttakun Elkartea).
- 02/0722 erabakia, uztailaren 5koa, udako kanpamenduetan eskolako gimnasioa erabiltzeko baimena emanez (Errekaldeko Eskautak).
- 03/0722 erabakia, uztailaren 5koa, Aranzadi Zientzia Elkarteari San Adrian/Lizarrate indusketa programaren barnean, gauak pasatzeko, eskolako gimnasioa edo ludoteka erabiltzeko baimena emanez.
- 04/0722 erabakia, uztailaren 7koa, partikularrak aulki eta mahaiak alokatzeko egindako eskaera onartuz.
- 05/0722 erabakia, uztailaren 7koa, 2/2022 kreditu aldaketa espedienteari hasiera emanez.
- 06/0722 erabakia, uztailaren 12koa, lurzoru publikoan edukinontzia jartzeko baimena emanez.
- 07/0722 erabakia, uztailaren 12koa, obra handiko lan baimena emateari buruzkoa.



ZEGAMAKO UDALA

- 08/0722 erabakia, uztailaren 13koa, udako kanpamenduetan eskolako gimnasioa erabiltzeko baimena emanaz (Los Angeles Eskaut taldea).

9.- GALDE ERANTZUNAK.

Ez dira egiten.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zazpiak eta hogeita bost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.